



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 22a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, enpleguaren arloko politika orokorrari eta IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak onetsitako erabakia, inbertsio sozialki arduratsu bat egin eta haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoa-ren produktuetan inbertitzeari buruzkoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanaren Mahaia berehala jar dezan abian. Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iturengo arrain-haztegiko lurzatiaren salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentari hasiera eman diezaion, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko. Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mapa bat sor dezan, sektore ekonomiko eta industrialen arabera patente-sorkuntzaren egoera islatzen duena. Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehenbailehen jar ditzan "Soltxateko II" espetxeak beharrezkoak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxe horrek behar bezala funtziona dezan. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da hipoteka arloko legedia aldatzeko proiektua presta dezan, Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarautik eratorritako eskakizunak betetze aldera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko martxoaren 14an emandako epaian zehazturiko moduan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da manten ditzan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak. María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Mozioa erretiratzea (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak goraiatzaren baitu Sunsundegui enpresako langileek eta zuzendaritzak enpresaren jarraipena ziurtatzeko lortu duten akordioa. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak batera pertsonatu behar dutela konstituziokontrotasun errekurtsioan, 18/2012 Foru Legea defendatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatu egiten baitu Saudi Arabian zazpi preso exekutatu izana, bai eta exekuzioak egiten dituzten herrialdeetan egindako exekuzio guztiak ere. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, Frantzisko Aita Santuaren hautaketa dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu pentsioen erreforma berriaren aurka dagoela erabat, eta Espainiako Gobernua premiatzen baitu berehala indargabetu dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Foru Komunitatean pobrezia-aren aurka egiteko 50 milioi euro bideratzeari buruz Gizarte Politiketako kontseilariak eginiko proposamenaren oinarri diren helburu eta programa xehakatuari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (17. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko aldi baterako kontratadun langileei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egin (18. or.).
- Galdera, jakitekoa gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuen sektorean, eta zenbaterik 2009tik 2012ra bitartean, Txema Mauleón Echeverría jaunak egin (18. or.).
- Galdera, departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteari buruzkoa, Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan, Txema Mauleón Echeverría jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Leitzako Plazaolaren geltokiko lanak finantzatzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin (20. or.).
- Galdera, Elizondoko saihebidetako egiteko lanei gehitutako zubia eraikitze eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspeni buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketa gauzatzeari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egin (21. or.).
- Galdera, Ubarmin Klinikako ambulanzia-sarbidetari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egin (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Arartekoaren kargua hutsik dagoela deklaratzeko (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Legean, zeina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2013ko otsailaren 27an argitaratu baitzen, 23. zenbakian. Horrenbestez, zuzenketa hau egiten da:

26. artikuluan, zeinak 6/2006 Foru Legeko 124. artikulua aldatzen baitu –19. orrialdeko eskuineko zutabea–, “1.i) (KENDUTA)” jartzen duen tokian, hau esan behar du:

“1. Administrazio kontratuak suntsiarazi ahal izanen dira hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Kontratista indibiduala hiltzea edo ezgaiturik geratzea, edo kontratista den sozietatearen nortasun juridikoa iraungitzea, salbu eta jaraunsle edo oinordekoek kontratuarekin jarraitzea adosten denean. Enpresen edo enpresa-adarren bat-egite, zatiketa, ekarpen edo eskualdaketa kasuetan, ondorioz sortzen den entitatea edo entitate onuraduna kontratistaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, kontratua formalizatzeko eskatzen den kaudimenari eusten baldin badio.

b) Edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratzeko, eta, konkurtsorik egonez gero, likidazio aldia hastea, salbu eta, azken kasu horretan, kontratistak kontratua exekutatzeko bermeak eman eta Administrazioak aski irizten dienean.

c) Administrazioa eta kontratista ados jartzea baldin eta, interes publikoko arrazoi onorioz,

ez bada beharrezkoa edo ez bada komeni kontratuak irautea, eta, betiere, kontratistari egozten ahal zaion beste kausaren bat ez badago kontratua suntsiarazteko.

d) Aginduzkoak diren bermeak ez jartzea.

e) Kontratuaren exekuzioa ez hastea horretarako ezarritako epean, izapidetze urgenteko espedienteetan.

f) Epe barruan ez exekutatzea, epea funtsezkoa denean.

g) Berandutzagatiko penalizazioa iristea kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20ra.

h) Kontratua ez formalizatzea ezarritako epean.

i) Kontratuaren exekuziorako betekizun sozial edo ingurumen arlokoak ez betetzea, 49. artikuluan aipatutako kasuan.

j) Administrazioa zortzi hilabete baino gehiagoz berandutzea ordainketa egiteko.

k) Kontratuko gainerako funtsezko betebeharrak urratzea.

l) Kontratuan espresuki ezartzen direnak.

m) Foru lege honetan adierazten diren gainerakoak”

Iruñean, 2013ko martxoaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, enpleguaren arloko politika orokorrari eta IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, enpleguaren arloko politika orokorrari eta IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jabeldura, enpleguaren arloko politika orokorrari eta, zehazki, IV. Enplegu Planaren luzapenari

buruzkoa; izan ere, Nafarroako Gobernuak ezkutu eta saihestu egin zuen gai hori enpleguari buruzko osoko bilkura monografikoan, eta, hartara, ebatsi egin zion eztabaida Parlamentuari.

Zioak:

Nafarroako Foru Komunitateak enplegura bideratzen dituen funts ia-ia guztiak daude enplegu planetan sartuta. Ez Nafarroako Gobernuak, ez hari sostengua ematen dion UPN alderdiak ere, ez zuten inolako proposamenik egin Enplegu Planari buruz, eta kontrako botoa eman zien Aralar-Nabai parlamentu-taldeak aurkeztutako proposamenei, eta beste horrenbeste egin zuten Enplegu Planari buruzko proposamenik egin ez zuten beste parlamentu-talde batzuek ere –PSNk eta I-Ek–.

Enpleguari buruzko Mahaia eduki ekonomikorik gabe jaioko da, eta eraginkortasunik eta efizientziarik ez edukitzera eta politikoki barregarri gelditzera kondenatuta dago, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatean enplegurako bideratzen ahal diren funts guztiak ezkutukeriaz aplikatzen jarraitzen badira enplegu planetan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak onetsitako erabakia, inbertsio sozialki arduratsu bat egin eta haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoaren produktuetan inbertitzeari buruzkoa.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak onetsitako erabakia, inbertsio sozialki arduratsu bat egin eta haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoaren produktuetan inbertitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Txema Mauleón Echeverría, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

2010eko apirilaren 21ean, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen inbertsio sozialki arduratsu bat egin zezan, haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoaren produktuetan inbertituz.

Hona erabakia:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gordailuen zati baten inbertsio sozialki arduratsua egin dezan Fiare banka etikoaren produktuetako edozeinetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio gizarte-kapitaleko ekar-

pen bat egin diezaion Fiare-ri, erakunde publiko gisa gutxienekoa den parte-hartzearekin (1.800 euro).

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontusail bat ezar dezan 2011 eta 2012ko aurrekontuetan, urtean 35.000 euro inguruko esleipena izanen duena, banka etikoaren egitura Nafarroan irmotze aldera. Esleipen hori erabiliko litzateke pertsona bat kontratatu eta bulego bat alokatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo aurrekontuetan kontusail bat eslei dezan banka etikoaren jendarteratzerako eta horri buruzko sentsibilizaziorako, enpresen erantzukizun soziala bultzatzeko bere programan adierazten den bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen, bai eta gizarteratze-zentroek eta zentro horien erabilzaile diren pertsonen ere, dituzten finantzaketa-beharrizanei buruzko azterlan bat sar dezan Gizarte-bazterketaren aurkako II. Planean, era horretan tresna finantzario berriak pertsona horien beharrizanei egokitzeko, aurrera eramaten ari diren gizarteratze-prozesuetarako albo-laguntza gisa”.

Erabakia onetsi zenetik zenbait urte iraganda, onetsitakoetatik bat ere bete gabe dago gaur den egunean.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak apirilaren 21ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen bere gordailuen zati baten inbertsio sozialki arduratsua egin dezan Fiare banka etikoaren produktuetan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanaren Mahaia berehala jar dezan abian.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lanaren Mahaia berehala jar dezan abian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legean oinarritzko osasun laguntza etengabea eta larrialdikoa aldatu zituen abendua-

ren 19ko 131/2012 Foru Dekretua indargabetu zuenak, agindutako lan-mahaia.

Otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legearen bidez indargabetu egin zen abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretua, oinarritzko osasun laguntza etengabea eta larrialdikoa aldatu zituena.

Lege horretan xedatu zen lan-mahai bat eratuko dela, zeinean, ahal den parte-hartze handienarekin, saiaturiko baita akordioak lortzen, baliabide publikoen erabileran eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko, gaur egun ematen den zerbitzuaren kalitatea kaltetu gabe.

Hori dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala abian jar dezan lan-mahai bat, ahal den parte-hartze handienarekin eta urtebeteko epean ahalbidetuko duena ezartzea osasun laguntza etengabea eta larrialdikoaren erreforma, zerbitzuaren kalitateari onenari eutsiko diona, herritar guztiei tratu bera emanen diona eta baliabide publikoen erabileran eraginkortasuna eta efizientzia mantenduko dituen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iturengo arrain-haztegiko lurzatiei salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentari hasiera eman diezaion, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iturengo arrain-haztegiko lurzatiei salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentari hasiera eman diezaión, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iturengo arrain-haztegiko lurzatiei salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentari hasiera eman diezaión, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko.

Gaur egun, Iturengo arrain-haztegia herriko industrialde txikiaren alboko orube bat da, erabilezarik gabe dagoena orain dela urte asko eta, narriadura dela-eta, toki erabilezin eta osasungaitz bihurtua, arriskutsua ez esateagatik.

Esan bezala, industrialdearen alboan dago kokaturik, eta jakin badakigu bizilagun ekintzaileen batek interesa daukela biomasari lotutako enpresa proiektu bat paratzeko bertan, besteak beste zortzi enplegu inguru sortuko lituzkeena; proiektu hori han paratzeko ahalegin guztiek porrot egin dute bost urte baino gehiagoz, beharbada Nafarroako Gobernuak interesik erakutsi ez duelako. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuaren jarduna bultzatzeko eginkizunari jarraikiz, parlamentu-talde honek uste du beharrezkoa dela gehiago ez atzeratzea lurzati horiek saltzeko edo enkantean emateko erabakia, enpresa jarduerak abian jarri ahal izan daitezen bertan, zeren, azken finean, enplegua sortzeko balio baitute.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has dezan Iturengo arrain-haztegia izandakoaren lurzatiei salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentea, bertan paratu ahal izan daitezen eskualdeko ekintzaileek sustatu nahi dituzten enpresa-proiektuak, hori baita enplegua sortzeko modurik zuzenena.

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mapa bat sordezan, sektore ekonomiko eta industrialen arabeko patente-sorkuntzaren egoera islatzen duena.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mapa bat sordezan, sektore ekonomiko eta industrialen arabeko patente-sorkuntzaren egoera islatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektorez sektoreko patente-mapa bat sordezan, gure produkzio-sarean sorme etea berrikuntzari –aplikatua nahiz ez– erreparatuta dagoen egoera islatzen duena.

Egungo egoera ekonomikoak administrazio publikoei exijitzen die, ekonomiaren eta enpresaren esparruan ditugun potentzialtasunak hobeki aprobetxatzeko ekimenak sortu ahal izateko,

aurretiazko azterketa sakon bat egitea aberastasuna sortzeko tresnen taxuketari buruz eta, bereziki, nola ekimen pribatua aukera-hobi berriak sortzen ari den, enpresen edo clusteren bidez eta bere I+G+Baren bidez patente bilakatzen diren, jardura berri bilakatu aurretik, gero proiektu berriak ekartzen dituztenak edo lehendik daudenak hobetzea ekartzen dutenak eta, azken finean, eta hori da garrantzitsuena, aberastasuna eta enplegua sortzen dutenak.

Talde honen iritziz, sektore ekonomiko bakoitzari atxikitako enpresen datuak islatuko litzuzkeen patente-mapa bat edukitzea eta, horren barruan, beren inguruan sortuz joan diren patenteena, tresna egoki bat izanen litzateke, pertsona askok eta enpresa askok detektatu ahal izan ditzaten lan egin ahal izateko aukera-hobiak, prozesuak perfektionatzeko edo garapenaren eta lankidetzaren arloko ideia berriak jasotzeko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mapa bat sordezan, ekonomia eta industria sektoreen arabera islatuko duena, dauden cluster-ak barne, egoera zertan den patenteen sorrerari dagokionez, halako moduan non tresna horrek balio ahalko baitu ikertzaile publikoek eta pribatuek beren ikerkuntza-ahalegiak bideratu ahal izateko beren ikerketan aplikazioa lortzera beren interesekoak izan daitezkeen produkzio prozesuetan eta egoera-mapa horren bidez detektatutakoetan. Eta ekintzaileentzat baliozgarria izan dadin negoziarako eta enplegua sortzeko aukera berriak aurkitzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Gobernuaren Nafarroako ordezkariak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Nafarroako Foru Komunitateko udal batzuen erabakiaren aurka, langileei 2012ko abenduan osagarri bat ordaintzea erabaki baitzuten, erosahalmene-

naren galera dela-eta, ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa. Azken egunotan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren jakinarazpena jaso dute udal horiek.

Gure ustez, aukera hori jasota zegoen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legean, erosahalmenearen galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortu zuenean. Hona zer dioen legeko artikulua bakarrak "Aldi baterako osagarri pertsonal berria, erosahalmenearen galera dela-eta":

"1. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaie 2012an, erosahalmenearen galera dela-eta, uztailen jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

2. Ordainsaria 2012a bukatu aitzin ordainduko da, ordainketa bakarrean, eta funtzionario bakoitzari aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat dagokion zenbatekoa ordainduko zaio".

Nafarroako Parlamentuak aipatu foru legea onetsi zuenez, eta aipatu errekurtsoak ukitutako udalei babesa emate aldera, ondoko erabaki proposamena onesten da:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betez hartutako erabakia defendatzeko".

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehenbailehen jar ditzan "Soltxateko II" espetxeak beharrezkoak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxe horrek behar bezala funtziona dezan.

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen jar ditzan "Soltxateko II" espetxeak beharrezkoak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxe horrek behar bezala funtziona dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak eta Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu diote Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken asteotan bata bestearen ondotik heldu dira Soltxateko espetxearen funtzionamendu eskasari buruzko salaketak. Makroespetxe hori, orain dela gutxi inauguratua eta Gobernu zentralaren arabera, espetxe zaharraren pilaketa arazoak konpontzeko diseinatua, ez dago ehuneko ehun irekita; izan ere, langile eta baliabide faltak bere

hamar moduluak irekitzea eragozten du. Hori dela-eta, aldiro ari dira presoak Estatuko beste espetxe batzuetara lekuz aldatuak izaten, gainokupazioa eta espazio falta alegatuta.

Halaber, Espetxe Zuzendaritza Nagusia Foru Komunitatera itzultzeko baimena ukatzen ari zaie Nafarroan gizarte- edo familia-loturak dituzten presoiei.

Gainera, langile-kopuruaren baldintzapenak modulu gehiago irekitzea eragozten du, eta zerkusia izan du Iruñearen erdian zegoen espetxe zaharreko Gazteen Departamentua desagertzearekin, zeinari esker bereizten baitziren 21 urtetik beherako presoak eta gainerakoak, haien birgizarteratzea erraztearren.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ahal den azkarren jar ditzan Soltxateko espetxean beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxearen behar bezalako funtzionamendua ahalbidetzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Gazteen Departamentua jar dezan, halako moduan non 21 urtetik beherako presoak eta gainerakoak bereizi ahalko baitira, haien birgizarteratzea erraztearren.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Nafarroan gizarte- eta familia-loturak dituzten presoak Soltxateko espetxera itzultzeko eskaria onar dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da hipoteka arloko legedia aldatzeko proiektua presta dezan, Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarautik eratorritako eskakizunak betetze aldera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko martxoaren 14an emandako epaian zehazturiko moduan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita hipoteka arloko legedia aldatzeko proiektua presta dezan, Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarautik eratorritako eskakizunak betetze aldera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko martxoaren 14an emandako epaian zehazturiko moduan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Txema Mauleónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da hipoteka arloko legedia aldatzeko proiektua presta dezan, al bait azkarren, Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarautik eratorritako eskakizunak betetze aldera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko martxoaren 14an emandako epaian zehazturiko moduan.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia orain dela gutxi mintzatu da Espainiako etxegabetze-prozesuei buruz; bere ustez, hipoteka arloko legea abusuzkoa eta zuzenbidez kontrakoa da, kontsumitzaileekin egindako kontratuetako abusuzko klausulak direla-eta Kontseiluaren 93/13/EEE Zuzentaruak ezarritakoarekin bat.

Auzitegiaren arabera, Espainiako araudiak ez du betetzen eraginkortasunaren printzipioa; izan ere, ezinezkoa edo zailegia egiten du zuzentaruak kontsumitzaileei eman nahi dien babesa aplikatzea. Halatan, Europako erakundeak ezartzen du hipoteka-legeak kontsumitzaileen eskubideak urratzen dituela.

Europako Justizia Auzitegiaren epaia Bartzelonako merkataritza arloko epaitegi batek eginiko kontsulta bati erantzutera dator, herritar batek banku-entitate baten aurka bere etxebizitzatik kaleratu ondoren 2011ko urtarrilean aurkeztutako demanda baten ondorioz.

Kasuko epaileek deliberatu dute kontratuen arloko Europako legedia eta Espainiako hipoteka arloko araudia ez datozela bat. Epaia beste adierazten du Espainiako legeak epaileei ez diela aukerarik ematen kautelazko neurriak hartzeko bankuek agindutako kaleratze prozesuei dagokienez, exekuzio hipotekarioko prozesua eteteko edo oztopatzeko.

Zehazki, Europako auzitegiak dio ezin izanen dela etxegabetzerik egin baldin eta higiezin baten exekuzioa egiten bada epaileak deklaratu aurretik hipoteka oinarritzen den kontratuko klausula abusuzkoa dela eta, horrenbestez, betearazpenaren prozedura deuseza dela. Orobat adierazten du Espainiako kasuan epaileak ez daukala hipoteka-exekuzioaren prozedura eteteko aukerarik, baldin eta erabakitzen badu deusez deklaratzeko kontratu bateko klausula bat, abusuzkoa dela uste duelako; erabaki horrek a posteriori bakarrik babestuko du kontsumitzailea, kalte-ordain bat emanda.

Gure ustez, indar birrintzaileko epaia da hori, egungo hipoteka-legea herritarrentzako abusuzkoa eta bermerik gabea dela berresten duela; hartara, behar-beharrezkoa da lege hori aldatzea, Kongresuan izapidetzen ari den herritarren legegintza ekimenaren sustatzaileek eskatzen duten moduan.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Bere poza adieraztea kontsumitzaileekin egindako kontratuetako abusuzko klausulei buruz-

ko 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarauaren aplikazioari buruz Europar Batasunaren Justizia Auzitegiak 2013ko martxoaren 14an emandako epaia dela-eta, zeinak exijitzen baitu exekuzio hipotekarioko prozeduran epaileek etxegabetze prozedura eteteko kautelazko neurria hartu ahal izatea.

2. Espainiako Gobernuak premiatzen da hipoteka arloko legedia aldatzeko proiektua presta

dezan al bait azkarren, Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarautik eratorritako eskakizunak betetze aldera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko martxoaren 14an emandako epaian zehazturiko moduan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernuak premiatzen da mantentzen ditzan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez nazioko gobernuak premiatzen baita mantentzen ditzan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun María Victoria Arraizak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Alderdi Popularrak Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen sartutako aldaketa sakonek denboran iraupena izan dute.

Nabarmendu beharra dago murriztu egin dela hitzartutako mailaren finantzaketa, 2012ko aurrekontu orokorretan sartu zena, 283 milioi euro inguru egiten zuena; Nafarroaren kasuan, murrizketa 5 milioi euro ingurukoa izan da.

Geroago, nabarmen murriztu zen Estatuak Mendekotasun Legearen finantzaketarako egindako ekarpena; bereziki, gutxiengo maila bermatuari egindakoa, gutxi gorabehera % 13ko murrizketa izan baita; eta mailak desagertzen direnean, murrizketa % 30erainokoa izan liteke. Nafarroak 14 milioi euro inguru jaso ohi ditu "gutxiengo maila bermatua" izeneko delata-eta, eta horri gehitu behar zaizkio hitzartutako maila delata-eta jasotzen zituen eta jasoko ez dituen 5 milioiak. Alegia, arlo horretako –gutxiengo maila bermatuko– ekarpen-beherakada 1,8 milioi eurokoa izan delata esan daiteke, eta mailak desagertzen direnean 4,2 milioi eurokoa izateraino hel daiteke Estatuaren finantzaketa txikiagoa.

Horri gehitu behar diogu mendekotasun mailen desagertzea (1. eta 2. mailak), bateragarritasun guztien desagertzea edo ertainak sartzeko atzerapena –2013tik, PPrene lehen erreformarekin, 2015eko uztailera, PPrene azken erreformarekin–, edo bi urtera atzeratzea, eskabidea aurkeztu denetik, laguntza ekonomiko baten bidezko prestazioa jasotzeko eskubidea.

Erreforma horrek Ongizate Estatuaren laugarren zutabea eraisten du, eskubide subjektibo bermatu gisa; izan ere, egindako erreformek de facto daramate legea desagertzera, autonomia erkidegoentzat ezinezkoa delako hura egungo mailetan ekonomikoki mantentzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak nazioko Gobernuia premiatzen du:

1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak mantentzera.

2. Legearen jatorrizko testuan jasotako ezagupen-egutegira itzultzera.

3. Bertan behera uztera uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan sartutako aldaketak.

4. Behar adinako finantzaketaz hornitzera mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta haiei laguntza emateko sistema, hitzartutako mailari, eta gutxieneko mailaren zerbatekoa igotzeari dagokiona barne.

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuia premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Espainiako Gobernuia premiatzen

zen luza zezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Mozio hori 2013ko urtarrilaren 21eko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak goraipatzen baitu Sunsundegui enpresako langileek eta zuzendaritzak enpresaren jarraipena ziurtatzeko lortu duten akordioa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak goraipatzen du Sunsundegui enpresako langileek eta zuzendaritzak lortu duten akordioa, bideragarritasun plan berri baten bidez, erabaki zailak hartuta, enpresaren jarraipena ziurtatzekoa.

Aldi berean, Nafarroako Parlamentuak eskertu egiten du akordio hori lortzeko parte-hartze akti-

boa izan dutenen ahalegina; izan ere, ohartzen da zailtasun handiak gainditu behar izan dituztela akordioa lortzeko, eta animatu egiten ditu prestutasun hori bera izan dezaten beti, konbentziturak dagoelako hori dela modu bakarra –alegia, akordio-orako prest egotea– egungo nahiz etorkizuneko zailtasunak gainditzeko".

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak batera pertsonatu behar dutela konstituziokontraotasun errekurtsioan, 18/2012 Foru Legea defendatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak adierazten du, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legearen aurka Espainiako Gobernuko

lehendakariak aurkeztu eta Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartutako konstituziokontraotasuneko errekurtsioaren auzian", Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak batera pertsonatu behar dutela foru araua defendatzeko".

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatu egiten baitu Saudi Arabian zazpi preso exekutatu izana, bai eta exekuzioak egiten dituzten herrialdeetan egindako exekuzio guztiak ere.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Gaitzetsi eta arbuiatu egiten du Saudi Arabian zazpi preso exekutatu izana, bai eta exekuzioak egiten dituzten herrialdeetan egindako exekuzio guztiak ere.

2. Espainiako Gobernuak premiatzen du Saudi Arabiari helaraz diezaion gure sumina, heriotza zigorraren ondoriozko exekuzioek justizia bera doilortzen dutelako eta exekuzioak baliatzen dituen gizarte osoa gizagabetzen dutelako”.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, Frantzisko Aita Santuaren hautaketa dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak Frantzisko Aita Santuari gonbit egin diezaion Foru Komunitatera, misioen patroiz San Frantzisko Xabierkoaren sorlekura, bisitan etortzeko.

2. Ongietorria eta zorionak ematen dizkio Aita Santu berriari eta opa dio aitasantutzaldi luze eta emankorra izan dezan, Eliza Katolikoaren buru gisa.

3. Helarazten du zein garrantzitsua den Eliza Katolikoak, gainontzeko erlijioek eta erakundeek bezala, nekerik gabe lan egin dezan nazioen arteko loturak estutzeko eta mundu osoko herritarren arteko desberdinkeriak murrizteko, giza eskubideak uneoro zainduz.

4. Adierazpen instituzional hau helaraziko die Nafarroako Gobernuari, Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzari, Espainiako Nuntzio Apostolikoa eta Vatikanuari”.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu pentsioen erreforma berriaren aurka dagoela erabat, eta Espainiako Gobernua premiatzen baitu berehala indargabetu dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak adierazten du lege-dekretu bidez onetsitako pentsio-erreforma berriaren aurka dagoela erabat, izugarri bidegabea dela

uste baitu, gutxieneko akordio politiko eta sozialik gabea, eta Espainiako Gobernua premiatzen du berehala indargabetu dezan".

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Foru Komunitatean pobreziaren aurka egiteko 50 milioi euro bideratzeari buruz Gizarte Politiketako kontseilariak eginiko proposamenaren oinarri diren helburu eta programa xehakatuei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Foru Komunitatean pobreziaren aurka egiteko 50 milioi euro bideratzeari buruz Gizarte Politiketako kontseilariak eginiko proposamenaren oinarri diren helburu eta programa xehakatuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Sustapen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Martxoaren 11n, Gizarte Politiketako kontseilariak iragarri zuen Nafarroako Gobernuak 50 milioi euro bideratuko dituela Foru Komunitatean pobreziari aurre egiteko.

Galderaren testua

Zer helburu eta programa zehatz daude kontseilariak aurkeztutako proposamen horren oinarrian?

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

Galdera, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko aldi baterako kontratadun langileei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko aldi baterako kontratadun langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Justizia eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Zenbat pertsonak daukate aldi baterako kontratua 2013ko martxoaren 1ean, Foru Komunitatearen Administrazioeko departamentu bakoitzean (erakunde autonomoak barne)?

2. Aurreko galderan aipatutako departamentu bakoitzeko aldi baterako langileek zer portzentaje egiten dute departamentu horien zerbitzuko langile guztien artean, 2008ko martxoaren 1etik 2013ko martxoaren 1era bitarteko epean?

3. Zer neurri hartu dira Foru Komunitateko administrazioan behin-behinekotasuna murrizteko?

Iruñean, 2013ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakitekoa gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuen sektorean, eta zenbatek 2009tik 2012ra bitartean.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuen sektorean, eta zenbatek 2009tik 2012ra bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Erregelamenduaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Zenbat pertsonak lan egiten dute egun gizarte zerbitzuetako sektorean? Zenbat ziren 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an?

2. Biztanleria aktibo osoaren zer portzentaje egiten dute pertsona horiek 2009-2013 aldian?

3. Zein da zahar-etxeetako langileen eta etxez etxeko laguntzako behin-behinekotasun tasa?

4. Zenbat hitzarmen mota aplikatzen dira egoitzen esparruan?

Iruñean, 2013ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteari buruzkoa, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteari buruzkoa, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Justizia eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Zertan da departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteko prozesua, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan?

Iruñean, 2013ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Leitzako Plazaolaren geltokiko lanak finantzatzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Leitzako Plazaolaren geltokiko lanak finantzatzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Miren Aranoa Astigarragak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

Plazaola Kontsortzioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean azkeneko hilabeteetan zenbait elkarriketa eta bilera izan dira. Bileren hauen artean Turismoko Zuzendariak Plazaolako Kontsortzioko kideei esana da Leitzako Plazaolako geltokiaren obrak, nahiz eta PDRStik ezin diren egin obra hauek, 2013. urtean eta 2014. urtean Turismo Departamentuko partidetatik egingen direla. Bestalde esan, Nafarroako Gobernuak Parlamentuan aurkeztutako 2013ko aurrekontuen zirriborroa atzera bota duela. Hau da, 2013. urtean Nafarroako Gobernuak aurrekontu prorrogatuak izanen ditu. Hau dela eta, Nafarroako Gobernuak Leitzako Plazaolako geltokiaren obrak martxan jartzeko, bertan alberge bat eraikiko da.

- Zein partidetatik atera behar du dirua 2013. urtean?

- Zenbatekoa da aurreikusten den diru kantitatea obra hau aurrera eraman ahal izateko?

Iruñean, 2013ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Elizondoko saihebidia egiteko lanei gehitutako zubia eraikitze-ko eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Elizondoko saihebidia egiteko lanei gehitutako zubia eraikitze-ko eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Sustapen Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Zer aurreikusten du departamentuak Elizondoko saihesbidea egiteko lanei gehitutako zubia erakitzeke eta amaitzeko epeei dagokienez?

Iruñean, 2013ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketa gauzatzeari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketa gauzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Departamentuak noiz baimenduko du Toki Azpiegiturei buruzko Planean aurreikusitako jarduketa egitea, Txulapaingo uraren goi-hornidurarekin lotutakoa eta Osinagako eta Aristregiko kontzejuei eragiten diena?

Iruñean, 2013ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Ubarmin Klinikako anbulantzia-sarbideari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, anbulantziak Ubarmin klinikari sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Orain dela urte batzuk, kirurgia-eremua birmoldatzeko obrak zirela-eta, anbulantzien trafikoa eta Iruñetik Ubarmin Klinikarako sarbideak desbideratu ziren, obretako kamioien trafikoarekin bat egin ez zezaten.

Ordura arte, anbulantziak, gainontzeko ibilgailuak bezala, Eguesibarko industrialdeko biribilgunea eta klinika lotzeko errepide nagusitik sartzen

ziren klinika-gunera; errepide horrek bi errei ditu, bat norabide bakoitzean, zirkulatzeko behar besteko zabalerakoak. Erabakiak berekin zekarren anbulantziak hiri zeharbide batetik iristea Klinikara (Elkanoko Leku-Eder urbanizaziotik), Elkanosagasetara sartzeko toki-errepidetik. Bizilagunek beren desadostasuna eta haserrea adierazi dute aldaketa-erabakiari dagokionez; izan ere, bide horrek ez dauka behar besteko zabalerarik, bi ibilgailu segurtasunez pasatzen direla bermatzeko.

Birmoldaketa-obrak orain dela urtebete baino gehiago bukatu ziren, eta ustez aldi baterako zen aldaketa mantentzen da anbulantzien sarbideari dagokionez. Gainera, pentsatzekoa da Ubarmin Klinikaren kirurgia-jarduera areagotu egingen dela, kirurgia-eremu berria zerbitzuan jartzearekin batera.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Noren ardura izan zen anbulantziak Ubarmin Klinikara iristeko sarbidea aldatzeko erabakia hartzea?

- Zer baldintza eta terminotan hartu zen erabaki hura? Zenbat denborarako planteatu zen aldaketa?

- Zer asmo ditu Gobernuak horri dagokionez? Anbulantzien sarbidea aldatzeko erabakia bertan behera utziko al du, eta hasierako sarbideetara itzuliko al da? Zein epetan?

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Arartekoaren kargua hutsik dagoela deklaratzeari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 2.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuak hautatuko duela Arartekoa, sei urterako. Foru lege horretako 8.1.b) artikulua ezartzen du Arartekoak kargua utziko duela ezarritako epea amaitzean, eta 8.2 artikulua zehazten du Nafarroako Parlamentuko lehendakariak kargua hutsik dagoela deklaratu duela kargualdia amaitzean.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 2.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuak hautatuko duela Arartekoa, sei urterako. Foru lege horretako 8.1.b) artikulua ezartzen du Arartekoak kargua utziko duela ezarritako epea amaitzean, eta 8.2 artikulua zehazten du Nafarroako Parlamentuko lehendakariak kargua hutsik dagoela deklaratu duela kargualdia amaitzean.

Oraingo Arartekoa 2007ko martxoaren 15ean hautatu zen, eta urte bereko martxoaren 22an hartu zuen jabetza. Horrenbestez, haren kargualdia 2013ko martxoaren 22an amaitzen denez,

arestian aipatutako artikuluekin eta foru legearekin bat,

EBATZI DUT:

Lehena.- Deklaratzea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren kargua hutsik dagoela, aurtengo martxoaren 23tik aitzina.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

